


# SOINUJOLEAREN SEMEA

Fernando Bernuesek zuzendua

Bernardo Atxagaren eleberri ospetsuan oinarritua

Abra Prod eta Tentazioaren ekoizpena



Prentsa:

GASTIBELTZA FILMAK

Katti Pochelu

[gastibeltza.filmak@gmail.com](mailto:gastibeltza.filmak@gmail.com)

06.52.011.880

## ZUZENDARIAREN OHARRAK - FERNANDO BERNUÉS

Nire ustez, *Soinujolearen semea*-k beste edozein istoriok baino hobeto azaltzen du zer-nolako pultsio konplexu eta tirabiratsua izan genuen Euskal Herriko gizartean, politikan, kulturean, bizimoduan eta emozioetan joan den mendearen erdialdetik 90eko hamarkadaren amaierara bitartean. Horretarako, iragan kolektibo ilunera zuzentzen gaitu artean nerabea den protagonistaren begiradak (nerabetasunak dakarren erabateko adierazgarritasunarekin), amarruz eta sekretuz betea dagoen iragan nahasi horretara, alegia. Hain erabakigarria izan dena 50eko hamarkadan jaiotako belaunaldien patuan, hala nola, Gernikako bonbardaketa eta Gerra Zibila.

Narrazioari dagokionez, kontakizun «historizista» bat eskaini beharrean, sentimenduetan jartzen du indarra *Soinujolearen semea* lanak; hain zuzen ere, bi lagunek, hogeita bost urtez elkarren arteko harremana drastikoki etenda izan ondoren, berriz topo egingo duten unean. Iraganaz hitz egiteko eta sozialki metaforikoa izan daitekeen isiltasuna apurtzeko azken aukera izan dezakete aspaldiko lagun min hauek.



## SINOPSISIA

David Imazek Euskal Herritik alde egin behar izan zuen hirurogeita hamargarren hamarkadan, bere kideek arbuaturik. Kalifornian zorientasuna aurkitu duen arren, iraganak eta erru sentimenduak ez dio bere bizitzako azken egunak lasaitasunez pasatzen uzten.

Joseba Altuna, umetako laguna, azken agurra ematera doa eta bide batez aspaldiko kontu batzuk argitzera. Urte asko pasa dira azken aldiz elkar ikusi zutenetik. Heldu da egiari aurre egiteko ordua.



## FITXA ARTISTIKOA

Aitor Beltrán	David nagusia
Iñaki Rikarte	Joseba nagusia
Cristian Merchán	David gaztea
Bingen Elortza	Joseba gaztea
Frida Palsson	Mary Ann
José Ramón Argoitia	Eusebio
Joseba Apaolaza	Ángel
Mireia Gabilondo	Carmen
Miren Arrieta	Teresa
Laia Bernués	Virginia
Alberto Berzal	Juan
Mikel Losada	Jagoba
Eneko Sagardoy	Lubis

## FITXA TEKNIKOA

Zuzendaria	Fernando Bernués
Gidoia	Patxo Telleria <i>Bernardo Atxagaren eleberrian oinarritua</i>
ekoizle eragileak	Joxe Portela y Ane Antoñanzas
Argazki zuzendaria	Gonzalo Berridi “Kalo” Produkzio
zuzendaria	Marta Gerrikabeitia
Musika	Fernando Velázquez
Muntaia	Raúl López
Arte zuzendaria	Peio Villalba
Jantziak	Saioa Lara
Makilajea	Karmele Soler
Ile-apainketa	Olga Cruz
Zuzeneko soinua	Pablo Bueno
Nahasketak	José Luis Rubio y Haritz Lete

## DATU TEKNIKOAK

Izenburua:	Soinujolearen semea
Nazionalitatea:	Espainiarra Generoa: Drama
Iraupena:	95’
Merkaturatzea:	Gastibeltza Filmak
Pantaila formatua:	2.39
Soinua:	5.1
Hizkuntza:	Euskara, gaztelera
Azpitulutzuak:	Euskara edo frantsesa

ICAA eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin eta ETBren parte hartzearekin.

## ZUZENDARIA: FERNANDO BERNUÉS

Tanttaka Teatroa eta Tentazioa Produksioak-en kide fundatzailea da. Antzerki, zinema eta telebistan ibilbide luze eta oparoa du, gaur egun arte eszenikoen erreferente bat da.

"Kutsidazu bidea, Ixabel" eta "Mugaldekoak" film luzeak zuzendu ditu baita hainbat telesail ere. Horrez gain, antzerki munduan izen eta ospe handiko antzezlanak zuzendu ditu 1983. urtetik gaur egunera arte: "El Florido Pensil", "Novecento: El Pianísta del Océano" edota "Sueño de una noche de Verano" beste askoren artean.

## EKOIZTETXEAK

### ABRA PROD

ABRA Prod 2003an Bilbon sortutako enpresa bat da eta bere jarduera nagusia ikus-entzunezko produkzioa da. Joxe Portela, Alberto Gerrikabeitia eta Daniel Torresen ekimenez sortzen da. Urte hauetan zehar ABRA Prodek honako dokumentalak ekoiztu ditu: Mares de Vida I, Mares de Vida II, Testigos de la Guerra, Universo Rabanne, Ibarrola dos miradas, Javier Aguirresarobe, Riotinto el latido de la tierra, Diot Gabriel Aresti, Museo de Bellas Artes de Bilbao eta Toda una vida para la superación.

Azkeneko urteetan film luzeetan murgildu da batez ere, aipatzekoak dira besteak beste: La Buena Voz (2005, Antonio Cuadri), Querida Bamako (2007, Omer Oke-Txarli Llorente), Omerta (2007, Pavel Giroud), La máquina de pintar nubes (2009, Patxo Telleria-Aitor Mazo), Aita, zonbia naiz (2011, Ricardo Ramón- Joan Espinach), Bypass (2012, Patxo Telleria-Aitor Mazo), Lasa eta Zabala (2014, Pablo Malo), Dixie eta matxinada zonbia (2016, Ricardo Ramón-Beñat Beitia), Igelak (Ranas) (2016, Patxo Telleria) eta Operación Concha (2017, Antonio Cuadri).

## TENTAZIOA PRODUKZIOAK

Donostian bere egoitza duen TENTAZIOA PRODUKZIOAK 1998ko uztailean sortu zen, bai ikus-entzunezkoen arloan bai antzerki arloan ibilbide profesional luzeko hainbat lagunen helburu eta interes amankomunak uztartzean”.

TENTAZIOAren hasierako curriculum eta bermea ekoiztetxea osatzen duten lagunen curriculumen batuketa da. Zuzendari, gidolari, aktore, ekoizle eta banatzaile gisan dituzten euren esperientzien batzeak ahalbideratzen du proiektu handiagoen ekimena eta neurri berean haien kalitatea, eraginkortasuna eta bideragarritasuna.

TENTAZIOAren lan ildo nagusiak hauexek dira:

-Antzerki ikuskizunen ekoizpena eta ustiapena.

-Ikusentzunezkoen ekoizpena.

-Gune eszenikoen kudeaketa eta programazioa.

Guzti hau helburu batekin: gaur egungo euskal kulturaren industriari baliabideak eta ekoizpen berritzaileak eskaintzea, ez ondorioei begira bakarrik baizik eta sormen, ekoizpen eta ustiapen prozesuak kontutan hartuz.



## IPARRALDEKO EMANALDIAK

Donibane Lohizunen, Le Sélect zinema-gelan, **maiatzaren 6an**, 20:30ean, Fernando Bernués eta Mireia Gabilondoren presentziarekin

Hendaian, Les Variétés zinema-gelan **maiatzaren 7an**, 20:30ean, Fernando Bernués eta Mireia Gabilondoren presentziarekin

Maulen, Maule-Baitha zinema-gelan, **maiatzaren 8an**, 20:30ean.

Donapaleun, Saint-Louis zinema-gelan **maiatzaren 9an**, 20:30ean, Iñaki Rekarteren presentziarekin

Urruñan, Itsas Mendi zinema-gelan, **maiatzaren 10ean**, 20:00ean, Bingen Elortza aktorearen presentziarekin

-

Kanbon, L'Aiglon zinema-gelan, **maiatzaren 13an**, 20:30ean, Patxo Telleria gidoilariarekin.

Donibane Garazin, Le Vauban zinema-gelan, **maiatzaren 14an**, 20:30ean, Bingen Elortza aktorearen presentziarekin

Hazparnen, Haritz Barne zinema-gelan, **maiatzaren 15ean**, 21:00etan, Bingen Elortza aktorearen presentziarekin

Biarritzen, Le Royal zinema-gelan **maiatzaren 16an**, 20:45ean, Bernardo Atxagaren presentziarekin.

### HITZORDU BEREZIA

**Maiatzaren 16an**, 18:00etan, Biarritzeko mediatekan, **Bernardo Atxagaren hitzaldia**:  
Soinjolearen semea: literatura eta zinema.